

MIERKATUAREN

SEGMENTAZIOA


Pilula ontzi-adimendunaren bezero nagusia sendagaiak hartu behar dituzten pertsonak dira, batzuetan nahastu edo ahaztu egiten dituztenak.

Batez ere, adin **nagusiko pertsonak** edo **gaixotasun larriak** dituztenak dira.



Xede publikoa, **30-60 urte bitarteko** pertsonak dira, esaterako diabetes edo bihotzeko arazoak dituztenak eta pilulak eguneratuta eduki behar dituztenak.

Hala ere, bezero gehienak **60 urtetik gorako** pertsonak dira, botiken menpe daudenak. Adineko gizon-emakume gehienak bakarrik bizi dira, eta ez dituzte haien medikamentuen jarraipena egiten, ahazkortasunagatik edo arduragabekeriagatik.



Gainera zaintzaileek eta senideek ere erosi dezakete, maite dituzten pertsonen eguneroko bizitzan zaintzen eta laguntzen egiten dien gailu erabilgarria delako. Horrela zaintzaileek ez dute etengabe gogorarazi behar edo kezkatu botikak ahaztu dituzten ahala ez, haien bizitza eta lana erraztuz.



Gure produktuaren inguruan jendearen iritzia ezagutzeko, **inkesta** batzuk egin dizkiogu gure inguruko adin desberdinetako jendeari, produktuak etorkizuneko aukerak eta interes komertziala dituen aztertzeko.

Inkesta honen bidez jakin nahi izan dugu jendeak produktua nori zuzenduta dagoela uste duen, non erabiliko den gehien, erosiko lukeen, zenbat ordaintzeko prest egongo lirateke eta produktua erabilgarria ikusten duen.



Datuak aztertu ondoren, guk pentsatu dugun bezala gehienek (**76,2%**) 60 urteko gorakoentzat zuzenduta dagoela uste dute, ahala ere, gainerako ehunekoa 40-60 urte bitartekoentzat da. Eta ez dago 40 urte berako iritzirik.

Jarraitzeko, gehienek (**68,2 %**) uste dute produktua gehien bat erabiliko litzatekela etxeetan, besta batzuk (**27,3 %**) egoitzetan erabili daitekela eta oso gutxi batzuk (**4,5 %**) uste dute osasun zentroetan erabilgarritasun gehiago izango duela.

Prezioari dagokionez, datuak aztertu eta gero, ondorioztatu daiteke pertsona gehienek 50€ inguru ordaintzeko prest egongo liratezkela.

Azkenik, inkesta egin diogun ia pertsona guztiei (**83,3 %**) idea gustatu zaie eta produktua erosteko prest egongo litzateke behar izanez gero, esaterako nagusiagoak direnean, baina badago pertsona talde txiki bat (**16,7 %**) produktu honetan dirua inbertitu ez luketeenak.